

## “NAZARETEKO JESUS”

Aurtengo gogo-jardunak egiteko, Jose Arregiren “Nazareteko Jesus” liburua izan dot lagungarri. (J. ARREGI, *Nazareteko Jesus*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbao, 2000). Ia 400 orrialdeko liburu mardula. Ez marrazkirik, ez argazkirik ez dauko.

Euskera ederra eta erraz ulertzekoa darabil. Estilo bizi-bizia. Frase kontrajarriak an eta emen. Kontrasteak maite ditu. Badau trebetasuna, bertsolarien antzera, gaiak esaera biribiletan sintetizatzen. Sarritan sermoi kutsua dario. Eta lartxotan demagogo joera be atsegin jako.

Baina balio dau gogo-jardunak norberak bakartadean egiteko ta baita gogo-jardunak taldean zuzentzeko be. Euskeraz, zoritxarrez, olako gaiak darabilzan liburu asko be ez daukaguz-eta.

Eta olako kasuetan, onena testu batzuk aipatzea izaten da.

### **Jainkoaren erregetza, Jesusen arazo**

“... Jainkoaren erregetza/erreinua da, beraz, Jesusen mezua-  
ren erdi-muina. Jainkoaren erregetza/erreinua da bere azken  
xede: Jesusen azken xede ez dira eliza, sakramentuak eta  
dogmak; Jesusen azken xede ez da hil ondorengo salbamena,  
'betiko bizia' eta 'zerua'; Jesusen azken xede ez da bere bu-  
rua ere, ez baitzuen burua iragarri; Jesusen azken xede ez da  
Jainkoa bera ere abstraktuki, munduan errege den eta izango

den Jainkoa baizik, behartsuen eta zapalduen intzeria eta oihua entzuten dituen Jainkoa, gure historia larrian justizia ezarri nahi duen Jainkoa, gizadiaren eta izadiaren ametsa eta helburua bere amets eta helburu dituen Jainkoa. Jainkoak gizadi eta izadi munduarentzat duen zorionezko borondatea eta promesa da Jesusen azken xedea. Horixe iragarri eta horixe gauzatu nahi izan ditu Jesusek berri ona hotseginez, bekatariekin janez, gaixoak sendatuz, sistema erlijioso eta politikoari aurre egiñez, behartsu eta eskumikatuen alde jarriz.

Beraz, kristauontzat ere Jainkoaren erregetzak/erreinuak behar du izan irakasten, pentsatzen, egiten dugunaren irizpide eta neurri. Gure gurari eta beldur pertsonalen nahiz kolektiboen irizpide eta neurri. Gure Eliz erakunde eta gorabehera guztien irizpide eta neurri. Jainkoaren erreinua lehenengo, Eliza gero. Jainkoaren erreinua lehenengo, Estatua gero. Jainkoaren erreinua lehenengo, ekonomia gero. Ez da Eliza Jainkoaren erregetzaren helburu, Jainkoaren erregetza baizik Elizaren helburu". (110-111 orr.)

### **Denak neba-arreba, denak maila bereko**

"Jesusen elkartearen helburua ez da elkarte bera. Gainera, Jesus karismatikoa zen, Jainkoaren Espiritu librearen eraginaz eta bultzadaz gehiago fio zen giza egitura eta arau estu guztiez baino. Ez zen, beraz, asko arduratu ikasle-talde hura zehatz eratzeaz. Hala ere, garrantzirik handiena zuten Jesusentzat elkarte-kideen arteko harremanek. Gauza guztietan garrantzizkoena elkar maitatzea delako lehendabizi. Eta, gainera, iragartzen zuten mundu berriaren ispilu eta irudi behar zuelako izan ikasle-elkarteak.

Nola iragar zezaketen Jainkoaren erregetzak askapena zekarrela, elkarte barruan morrontzarik bazen? Nola iragar zezaketen Jainkoaren erregetzak bakea zekarrela, norgehiagoka eta borrokan ari baziren? Nola iragar zezaketen Jainkoaren erregetzak behartsuen eta gose-egarridunen zoriona zekarrela, be-

raien artean aberatsak eta pobreak, aseak eta goseak baldin baziren? Nola aldarrika zezaketen Jainkoak negar egiten zutenak kontsolatuko zituela, elkar kontsolatzen ez bazuten? Nola hotsegin zezaketen Jainkoak gaixoak sendatuko zituela, elkar onartzen eta sendatzen ez bazuten? Nola hotsegin zezaketen Jainkoak Israelgo hamabi leinuak elkartuko zituela, elkarrekin konpondu ezinik bazebiltzan? Taldeak berak izan behar zuen Jainkoaren erregetzaren eta erreinuaren iragarpen, eta ez iragartzaile bakarrik.

Zer nolako harremanak behar dituzte, beraz, ikasleek elkarren artean? Jesusek ez zuen horretaz arautegirik eskaini. Baina hitz batean bildu zuen esateko guztia: neba-arreba. Hitz honek adierazten du, beste edozeinek baino hobeto, Jesusen Eliza barru aldera zer den eta nola izan. Eta hitz horrek adierazten du, beste edozeinek baino hobeto, zein den Jesusen ikasleen tentazio eta bekatu nagusia: inor mendean edukitzea” (191-192 orr.)

### **Jainkoaz mintzo eta Jainkoa bizi**

“Jesus ez zitzaigun Jainkoaz asko mintzatu. Jesus ez zen ‘teologoa’ izan. Ez zigun Jainkoari buruzko irakaspen espresu eta eraturik utzi, Jainkoaren erregetzari buruzko doktrina teorikorik eman ez zigun bezala. Eta berak bizi izandako Jainkoaren esperientziaz eta Jainkoarekiko harremanaz ere ez zigun zuzenean ezer esan.

Baina hori guztia ez da garrantzizkoena, gure ideia-zaletasunari maiz hala iruditu arren. Jesusek ‘bizi’ egin zuen Jainkoa, ‘Jainkoa praktikatu’ (G. Gutierrez). Sentitzen duena, esaten duena, egiten duena, dena Jainkoak eragina dago. Jainkoa du bizi-giro, barru eta kanpo. Jainkoa du begietan argi, bihotzean bero, eskuetan kemen. Dena Jainkoak eraginik egiten. ‘Jainkoarengan atsegin hartzen duen gizakia da Jesus’. Gari-so-roak eta bideko harriak, edo ereileak eta okinak, edo eguzkia eta euria, edo seme-alaben aita eta ama ikustean, Jainkoa ikusten du. Nekazari behartsuak, legenardun baztertuak, gaixo eta

elbarriak, zergalari eta prostituta arbuia tuak ikusten dituenean, Jainkoaren erregetzaren mina eta esperantza sortzen zaizkio.

Barne-sentipen, bizi-jarrera, ihardun-aukera bihurtu zuen Jainkoa. Horregaitik, Jesusen begirada, hitz eta egintza bakoitzari dario Jainkoaren kutsua. Pentsatzen, esaten, egiten duen guztiari nabari zaio Jainkoaren aztarna eta antza. Bere amets, poz eta larrietan, bere hitz, erabaki eta egintzetan agertzen digu Jainkoa. Bizitza osoa bihurtu zuen Jainkoaren kontakizun eta 'parabola', berri onaren kontakizun, itxaropenaren parabola". (227-228 orr.)

### **Gurutzean hila**

Gurutzean hila. Hemen ez dago duda-mударik, "agian" eta "segur aski"rik. Labur eta biribil esan behar da: Jesus gurutzean hil zuten. Azken krudel eta gogor horixe izan zuen Galileako profeta ongileak. K.o. 30ean gertatu zen, udaberriko ostiral-goiz batez. Hogeita hamalau/hamasei urte zituen Jesusek. Erlijio-jaunek eta politika-jaunek ezin izan zituzten haren berri ona eta egite onak luzaro jasan.

Gurutzean hila. Ohituegiak gaude Jesusen gurutzea aipatzen eta ikusten. Ez digu barruan zirrara eragiten. Urrezko edo zilarrezko edo harribitxizko edergailu bihurtu dugu gurutzea, etxeko horma eta altzarietan, geure lepo eta belarrietan, gotzai-bular eta behatzetan apaingarri eta erakusgai. Ez genuke ahaztu behar, gizakiak asmatu duen oinazegailurik latzenetakoa dela, eta bertan hil zela Jesus torturaturik, asfixiaturik, odolusturik.

Gurutzean hila. Baina ez bakarrik. Bi gurutzekide ditu Jesusek esker-eskuin, eta hainbat gurutziltzatu haren aurretik eta ondoren. Eta guztiekin batera, guztien gainera, Jainkoa bera. Jainkoa aitortzen dugu Jesusen gurutzekide. Beste gurutziltzatuak ere ez daude, beraz, bakarrik: Jesus dute gurutzekide, eta Jainkoa bera dute gurutzekide. Inon gurutzaturik den bitartean, non egon liteke Jainkoa gurutzatuekin gurutzean ez ba-

da? Eta Jainkoa gurutzekide badute, gurutzean arnasarik ez dutenek izan dezakete esperantzaren arnasa". (257)

### **Jainkoak berpiztua eta goratua**

"Guk uste genuen berak askatuko zuela Israel, baina... (Lk 24, 21). Horrela amaitu da hamaika historia eder.

Emausko ikasle haiek ere uste zuten bertan behera galduak zirela Jesusek piztuak zizkien ametsak. Baina Jesus bidera atera zitzairen berriro eta ametsari edo, hobeto esan, itxaropenari, ekin zioten berriro. Pazkoa zen. Ikasleek Jesusekin hasia zuten ametsaren historia, ostiral santuko gurutzeak porrokatu zuen esperantzaren historia, berriro hasi zen pazkoan, Jesus heriotzatik bizira igarotzean.

Ez da esperantza berria, kreazioa bezain zaharra baizik. Baina Jesusen pazkoa da, kristau-begientzat, esperantza zahar-raren irudi eta iturri berria. Jesusen pazkoan aitortzen dugu heriotza guztien suntsipena eta bizi berriaren garaipena sorkari guztientzat. Zoritxarra ez da azken zori. Zapaldu, gurutziltzatu eta oinazetu guztiekin dago Jainkoa, Jesusekin bezala. Justizia du arrazoi, ez botereak. Bakeak du arrazoi, ez hilketak. Adiskidetasunak du arrazoi, ez zapalketak. Esperantzak du arrazoi, ez etsipenak. Bihotzak du arrazoi.

Baina zergatik? Zergatik aitortu zuten antzinako ikasle haiek eta zergatik aitortzen dugu guk gurutziltzatua bizi dela? Ez zuten izan eta ez dugu frogarik. Baina gurutziltzatua berpizturik eta hidelagun sumatu zuten lehen ikasleek Jesusen oroipenean, Idazki zaharren mezuan, eguneroko esperantza saiatuan, senidearteko maitasun beroan, mahaikidego gozoan, bihotzaren egarri misteriotsuan. Berpiztua bera datorkigu guri ere geure etsipen eta esperantzen bidera, bere gorputzeko zauriak erakutsiz, bakoitzari bere izenez deituz, idazki Santuetako promesak berriro argituz, ogi berria banatuz, bihotzera mintzatuz. Horregatik aitortzen dugu, iluntasun eta zalantza guztien gainetik, apal eta irmo: Gurutziltzatua bizi da!". (293-294)

## Liburuaren akatsak

Liburu onek baditu bere akatsak. Eta ez txikiak ganera. Gauza bat da itzaldi edo sermoi gisan, gauzak bizi-bizi eta do-tore esatea, eta beste bat teologia egitea. Teologo on bateri, gixienez, eskatu bear jako ikuspegi sakon eta harmoniko bat Eleizaren iturriak baztertu gabe.

Liburu onek ez dauko beste munduko originaltasunik. Bere originaltasuna, J. P. Meier-en (Un judío marginal) edo G. Theissen-en eta A. Merz-en (El Jesús histórico) edo J. Sobrino-ren (Jesucristo liberador) edo E. Schillebeeckx-en (Jesús) edo olako beste batzuen ideiak eta kontzeptuak euskera garbian jartean dago. Ortxe dago liburu onen meritua eta originaltasuna. Inondik ere ez liburuaren mamian, batez be, Bultmann gerotik, teoria orreek, leenengo protestaeen artean eta gero katolikoaren artean be, ezagunak diralako. Gordinago edo bigunago esanda, interpretazino orreek ez dira atzo goizekoak.

Baina teologo bateri eskatzen jakona ez da itsu-itsuan ari edo oni jarraitzea, gogoeta orokorra ta logikoa baino, Eleizaren ildotik jokatuz. Liburu orren elburua “bai teologiako Fakultate eta Seminarioetan, bai erlijio zientzien Institutuetan ikasketak egiten ari direnentzat” bada, Eleizaren dotriña beste dotrina guztien gaintetik edo azpitik edo saietsetik, al dan ondoen azaltzea eskatzen jako ganorazko teologo eleitzar bateri. Eta ainbat gai nagusitan orixe falta jako Jose Arregiren “Nazareteko Jesus” deritxon liburuari.

Jesusen bizitzari buruz edo Andra Mariari buruz edo beste edozeri buruz, ez dabe balio bakarrik gogoeta arinak eta dotoreak. Ortodoxia be ezinbestekoa da. Eta ez kriterio batzuk orain eta urrengoan beste batzuk erabili. Komeni jakonian dana da gertakizun historikoa, dana errealitate fisikoa, dana itzez itzez artzeko kronika. Eta komeni ez jakonian dana metafora, dana poema, dana kontakizun sinbolikoa, dana fabula.

Besteak beste, xelebreak Jesusen “jaiotzaren” edo “biztuaren” interpretazinoak. Benitez jaunarenak dirudie. Barre egite-



koa, Jesusen ilobi utsaren tradizioaren kreazioa. Penagarriak Eleizaren leenengo kontzilioen adierazpenak. Jesusen aurre-existentziaren esplikazioak biraoa dirudi.

Laburtuta, Jose Arregiren “Nazareteko Jesus”, Andra Mariagandik eta Josegandik sortutako gizontxo zintzo eta erre-boltari errukarri bat besterik ez da. Baina bere portaera jatorragatik, Jaungoikoak txalotu egin dau. Berari emon deutso arrazoia. “Biztu” egin dau. Eta munduko errukarri guztien itxaropen eta pozbide jarri.

Zertan datza “biztuera” ori? Ez dago garbi jakiterik, “biotz begiz” ikusten ei dan “zerbait” dalako. Beraz, Jesusen gorputza bein betiko ilobian ustelduta geratu danez, ez ei da Jesusen gorputzean fisikoki gertatutako “zerbait”, Jesusen nortasun barne sakonean gertatutako “zerbait” baino.

Orixe besterik ez da Jose Arregiren “Nazareteko Jesus”. Baina, olakoa ete da, Eleiza Katolikoaren santuak eta martiriak eta misiolariak bizi daben Nazareteko Jesus? Baditut neure dudadatxoak...

*A. Olea*